



## **ELORREGI - ILUNBE (1. etapa)**

- **0:00.** Elorregiko (San Prudencio) elizaren aurretik abiatuko gara, errepidea gurutzatu eta Deba erreka gaineko zubia hartuko dugu, beste aldera pasatzeko.

Zubiaren erdian, azpialdean, Deba ibaia eta Artixa erreka (Oñati erreka) urak elkartzen diren erdiko puntuak markatzen du Arrasate, Oñati eta Bergara arteko mugak elkartzen diren puntua (**113-b**), 1939ko aktan agertzen den bezala.

- Zubiaren beste aldean, eskuma aldean, egun "Tavex S.A" lantegia dagoen leku berean zegoen Elorregizaharra izeneko baserriaren armarrria ikus dezakegu.
- Lantegi ondotik pasatu eta Oñati aldera jo 100bat metro bidegorritik, erreka ondoan dagoen Iberdrolaren hormigoizko poste baten ondoraino.

Poste horren ondoan, jarri berri dagoen mugarrria dago: **113 mugarrria "Elorregihandia"** (Oñatiko 1goa.).

- Atzera bueltatu eta lantegiari eskuma aldetik gora, "Elorregidomiñena" (Domiñena) baserrirantz doan bidea hartuko dugu.
- **0:20.** Autopista gainetik pasatu ondoren, Elorregidomiñena baserrira helduko gara, eta bere gainekaldetik bidea jarraituko dogu aurrera, 600bat metrotara, "Aierdi sakona" baserri parian, bidegurutze batera heldu arte. Hemen eskumara hartu eta "Elorregigoiti" baserriraino eramango gaitu bideak.
- **0:45.** Mugarrira joateko, baserri azpikaldian erromaria zeharkatu eta lehenagoko zorbide gainekaldetik jeitsiko dogu 100bat metro, pinu multzo bateraino.

**112. mugarrria "Elorregigoiti"** (Oñatiko 2grrena.) pinu horren artean dago, zorbide gainekaldian.

- Elorregigoiti baserrira bueltatu eta gorantz jarraitu behar da, gas eraikinaren eskuma aldetik gorantz doan porlanezko pistatik, eta erromara bat pasatu ondoren gas-eremuaren guenera helduko gara. Gas eremu horren horma baten kontra, hegoaldetik, mendi-bizkarra jarraituko dugu aldapan gora, gas hoditeria doan ingurutik.

**111. mugarrria "Lizartzoeti"** gas eraikinetik 150 bat metro ingurura dago, bidearen ezker aldera, bi gas-zutoin dauden tokian, hain zuzen ere, 5-6 metrora.

- Beti mendi-bizkarretik gora jo, gasbide ingurutik, eta une batez Aierdi baserritik datorren pista aurkituko dugu; zati baten pista hori jarraitu eta ezkerraldera jotzen duenean, guk eskumara hartu eta mendi-bizkarra jarraituko dugu gorantz. Aurrerago

zelai baterako sarrera ikusiko dugu eta, jarraitu behar dugun bidea goratxoago eta artean galdu egiten denez, zelai bazterretik igo beharko dugu, aldapa gogorrean zelai guenean berriro Aierditik datorren pista aurkitu arte.

- **1:15.** Hemen beste erromara bat pasatu beharko dugu, zelaitik irten eta mendibizkarrera berriro heldu, Zereñagaina deitutako puntuan.

**110. mugarría "Teraña gaña"** puntu honetan dago, goitik behera doian bide ezkerrean, dagoen harri multzo baten azpi-aldian, eta ostian ezkutatuta.

- Aurrera jarraituko dugu, pistatik, 300 bat metrora goian ikusten den txabolaraino.

**109. mugarría** txabolaren horma kontra dago, hegoaldean. Mugarría hau ez da agertzen 1939go aktan.

- Gaina jarraituko dugu hemendik aurrera, beti ere gasbide ondotik. Une batez Krabelinaitz izeneko tontortxoa ikusiko dugu gure ezkerrean. Bertantxe Pol-Pol menditaldearen buzoia ageri da.
- **1:30.** "Klabinaitz" tontortxo hori eskerrera utzi eta, handik oso gutxira, gaina hartzen den tokian, ageri-agerian dago bidean bertan beste mugarría bat.

**108. mugarría "Klabinaitz"** gaina hartzen den tokian, itxituraren aurrean dago.

- Ondoren, bideak lehenengo behera eta ondoren berriro gora egiten du, mendimaldaren gainaldetik eta zuzen, ekialderantz.

**107. mugarría "Pico de Marizelaieta"** hurrengo igoera ondoren aurkituko dugu, mendi bizkarrean, itxituraren bestekaldean.

- Ekialderantz jarraituz, lepo txiki batera heldu eta zelai baten ezkerreko aldetik jarraituko dugu, harrizko hesi baten barrenetik.
- **1:50.** Madarizelaieta deitutako inguru hori pasatu ondoren, Landarraitz bidean zabaltzen den lautada edo lepo zabalera helduko gara, Irumugarrieta ingurura.

**106. mugarría "Marizelaieta"** aipaturiko lautada horretan dago eta Antzuola, Bergara eta Oñatiren arteko muga markatzen du: harri landua da, hiruki formakoa.

- Irumugarrieta inguru hortan bertan, bidetik irten eta ezkerrean jo beharko dugu pinudi ertzerantz.

**105. mugarría "Astua"** aurreko 106 zenbakidun mugarrítik 60 bat metrora dago, ezkerretara, alertze-basoa eta pinudi baten tartean.

- hortik aurrera 100 bat metrora jarraitu eta ezkerreko bidea (iparrerantz) hartu beharko dugu, Astoaga (Astua) eta Trukarri aldera, Landarraitzko bidea alde batera lagata.

- Astoaga (Astua) eta Trukarri aldera bidea jarraitu eta beste 200 bat metrora, hurrengo mendi-bizkarrean, bidearen azpi-aldean, eta pinudi bazterrean,

**104. mugarría "Astua"** dago, sastraka artean, bide azpikaldean.

- **2:05.** beste 20 bat metrora, bidegurutzean, aurrera jarraitzeko bi aukera dauzkagu:
  - **a)**- Ezkerreko bidea hartuta, zuzen-zuzen hurrengo mugarrira eramango gaitu, beherantz, baina bide hau sasiekin itxita izaten da ia urte osoan (azarotik martxora arte izan ezik). Bide horretatik, Landarraitzik behera datorren erreka zulo bat pasa ondoren, pagadi baten gainekaldera helduko gara.
  - **b)**- Edo bestela, garbiagoa, eskuma aldetik altura galdu gabe jarraituko dugu, zeharka, basotik barrena. Errekaxo baten sorlekua pasatu ondoren, eskorta bat baino 100 bat metro lehenago, bidea laga eta pinuditik zehar zuzen beherantz egin beharko dugu, beheko bideraino, pagadi baten gaineko aldean.

**103. mugarría "Astoaga"** pagadi horren gainekalden aurkituko dugu, bidea pixka bat aurrera jarraitu eta behe aldera, 50 bat metro inguru bidetxur baten jarraituta.

- Bidetik aurrera jarraitu ipar aldera, altura galdu barik, eta bidegurutze baten eskumako pista jarraituz, pista hortako toki altuenera heldu arte. Bertan gainekaldeko pinuditik zihar igo beharko dogu 60 bat metro goiko bidera igotzeko, Astoaga (Astua) baserria zenaren zelai barrenean. Eta bide horretan ezkerrean (ipar aldera) jarraituz, belaxe

**102. mugarría "Astua-barrena"** topatuko dugu, bide erdian.

- Eta bide horretan ipar aldera jarraituz,

**101. mugarría "Astua-barrena"** aurkituko dugu. berriz, 100 bat metro aurrerago, pago batzuen barrenekaldian, pinudi bazterrean.

- **2:30.** Orain gorantz jo beharko dugu, pago batzuen ondotik, Astoaga (Astua) baserriko zelai ertzetik, eta 100bat metro ondoren, hemen ere, aurrera jarraitzeko bi aukera dauzkagu:
  - **a)**- Gorantz goazela, bide bat ezkeraldera eta beherantz hartuta, pinu gazte batzuen artetik, 99. mugarri bila joan gaitzke. Horretarako Asalditta erreka pasatu eta beste aldetik doan bidea hartu beharko dugu goitik behera, Astoaga (Astua) aldetik Elkoro aldera doan bide bat hain zuzen. Beherantz aldapa gogorrean bidea jarraitu eta eskumatik agertzen den bide baten bazterrean, Antzuolarrak jarri berri dagoen

**100. mugarría "Astua-barrena"** topatuko dugu, gure eskuma aldean,

- **3:45.** Ondoren aipatutako eskumako bide hori jarraitu beharko dugu (Ipar aldera) lehenengo, gero pinuditik zehar jarraitzeko pixkat gora aldera.

**99. mugarría "Azaldegietá"** aurkitzea ez da bape erreza, sasi azpikaldean izaten

danez gehienetan (abendua eta eta martxo artean izango da hara hurbiltzeko sasoi onena, batez be elurra egiten ba du). Pinudi gainekaldean gelditzen da.

Hemendik aurrera, ipar aldera jarraitu ibihar da errekatxo zuloa pasatu arte, eta ondoren zuzen-zuzen gorutz jo, aldapa gogor batetik gora, gainekaldeko pista aurkitu arte. Bide hortan ezkerrean jarraitu eta mendi bizkar batera helduko gara, 98 mugarrria dagoen lepo txiki batera, txabola baten hondakinen alboan.

- o **b)**- Edo bestela, garbiagoa baina 2 mugarrri horiek ikusi barik, pagoen ondotik gorantz jarraitu, zelai gueneraino, Astoaga (Astua) baserria zegoen lekuraino, bere horma aztarnak erakusten duten bezala.

Hemendik aurrera, pixka bat goratxoago, Trukarri (Trukarrixa) aldera doan bidea hartu beharko dugu lehengo beherutz (lokatza haundia izaten da hemen), Asalditxa erreka zuloa pasa eta ondoren gorutz Trukarriko lautadara irten arte. Toki honetatik 100 bat metrora, ekialdera, Trukarriko iturria dago.

Ondoren, Trukarritik Bergara aldera, mendebaldera doan bidea hartu eta altura askorik galdu barik hurrengo mendi bizkarreraino jarraitu beharko dugu, bideak errebuelta bat eman eta Ipar aldera jotzen duen tokiraino.

**98. mugarrria "Turko-arriaga"** bidearen ezkerrean dago, 100 bat metro beherago, bidetxur bat jarraituz, bizkar-gaineko lepo txiki baten, txabola baten hondakinen alboan.

- **3:15.** Berrito Trukarriko bidera igo eta beherantz egingo dugu bidetik, ipar alderutz, eta aurrerago, eskuma aldean, gainekaldian, beste txabola baten hondakinak ikusten dogun lekutik 100bat metroetara, beherantz 150-200 metro egin biharko dogu sastraka artean, beste bide baten, eta zuhaitz hilara bate aldemenian hurrengo aurkitzeko.

**97. mugarrria "Kurutzetxiki"** dago, Antzuolarrak jarri berri dagoena.

- Berrito goiko bidera bueltatu eta aurrera jarraituko dogu beherutz, eskumatik datorren bide baten bidegurutzeraino, eroritako pinu zuri luze baten ondoan.

**96. mugarrria-"Alto de Kurutzetxiki /Trukardiaga"** aurkituko dugu, Kurutzetxiki deitutako inguruan.

- **3:20.** Ondoren, ipar-mendebaldera jarraituz, bide-gurutze batera helduko gara eta eskumako bidea hartuta (iparraldera), aldapan behera, Iturrospeko txabolara iritsiko gara, "Rancho" izeneko elkarreak gaur egun erabiltzen duena. Txabola honetatik beherantz, Mendizabalgo bidean 60 bat metro aurrera joanda

**95. mugarrria. "Iturrospe"** aurkituko dugu, Antzuolarrak jarri berri dagoena.

- **3:30.** Iturrospeko txabola azpikaldetik behera jarraitu ipar alderutz, eta eskumakaldeko pinudira sartu bihar gara bertan behera jarraitzeko, beherago dagoen pista bat aurkitu arte. Hemen ere, berrito, aurrera jarraitzeko bi aukera dauzkagu:
  - o **a)**- Beherantz goazela, ezkerrekaldetik, pinuditik zihar beste 50mt jeitsi bihar da hurrengo pistara eta ezkerrean beherantz hartuta erreka aldera joko dogu eta

saguka (S-ak eginaz) jarraitu pistan behera. Erreka aldeko 2grren errebueltan, bidetik irten eta sastraka artean jo bihar dogu 100bat metro errekatxo ertzeraino.

**94. mugarría "Kortatxosakona"** pinudiko pista horretatik gertu dago, errekatxo gainekaldian erdi jausita.

- Mugarrí hori ikusi ondoren, erreka gainekaldeko bizkar hortatik behera egin bihar da zuzen, sastraka artean, behean dagoen beste bide bateraino. Bide hontan ezkerredera hartu, errekatxo beste aldera pasatu eta bidian behera jarraituko dogu berriro beherago dagoen beste bide bateraino. Errekatxoa zeharkatu barik beherutz jarraitu beste zati bat eta errekatxo ondoan dagoen mugarría aurkitu biharko dogu, bestekaldera doian beste bide baten hasieran.

**93. mugarría "Kortatxo-sakona"**, erreka zuloan, Mendizabal baserritik Miso baserrira antzina eramaten zuen bide zaharraren ondoan Antzuolarrak jarri berri daben mugarría dago.

- Ondoren, errekatxoa zeharkatu eta Miso baserrira doian bidera bueltatuko gara, zuzenean ekialdera jota, 200bat metro egin ondoren.
  - **b)**- Edo bestela, garbiagoa baina 2 mugarrí horiek ikusi barik, pinudian beherantz goazela, eskumakaldera jarraitu bidea eta basoan behera saguka (S-ak eginaz) jarraituko dogu pistan Miso baserria aldera.
- **4:15.** Pistan behera jarraituz, Miso baserriaren hondakinetera iritsiko gara. Hemen ere bi aukera dauzkagu:
  - **a)**- 92 mugarría ikusi nahi izanez gero, Miso baserria baina 50mt lehentsuago ezkerretik beherutz doian bidetxur bat jarraitu bihar dogu, han daren pinu batzuen gainekaldeko ertzetik, lehengo bide zahar bat zeharkatu eta gainekaldeko garo arte batetik jarraitu zuzen-zuzen jo basotik zehar erreka billa. Erreka beste aldera zeharkatu bihar da eta ezkerretik (gorutz) joanda belaxe helduko gara.

**92. mugarría "Mitxo-erreka"**, erreka ertzean dagoen mugarrí ezkutua (adar baten lotutako plastikoko batek adirazten dau tokia).

Basoan pixkat gora egin bihar dogu eta errekan behera jarraitu basotik zehar, erreka ertzeraino berriro heldu eta erreka bestekaldian Miso aldetik datorren bidetxurarekin bat egin arte.

- **b)**- Edo bestela, garbiagoa, Miso baserri ondoan, ezkerretik (txabola ondotik) ipar aldera doan bidea jarraituta, mendi bizkarrera heldu aurretik, eskerrekaldetik zuzen-zuzen beherutz jotzen daben bidetxur batetik jo bihar da, aintzinako zelaitetatik zehar, Miso erreka billa, erreka bera beste aldera zeharkatzeko.
- **4:35.** Ipar aldera jarraituko dugu, zeharka, basotik barrena bide zahar bat aurkitu arte. Bidea jarraitu beherutz eta laster eskumara irtetzen dan bidetxur bat aurkitu biharko dogu, erreka alderutz, beste bideak gora egin eta Mendizabal baserri aldera jotzen du

eta.

- Bide hori jarraituz Miso errekan behera joango gara eta Oruesagasti ("Usasti") baserri aurrera helduko gara, eta behera jarraituz errepidera irtengo dogu, Goenboluko bidegurutzera.
- **5:00.** Antzuolarantz 200 bat metro joko dugu, bidearen eskuma aldetik Illunbe ingururaino. **Argi bide bazterrean!**

**91. mugarría "Lapurzubi".** Miso erreken gaineko errepide zubiaren ondoan zegoen, erreka bazterrean, baina gaur egun Foru Aldundiak kenduta dauka, proiektatuta dagoen errepide berriaren obrak direla eta.

- Errepidea gurutzatu eta ezkerreko bazterretik jarraitu Antzuola aldera (eki aldera), Lapurzubi deitutako zubiraino. **Argi errepide bazterrean!!**  
Antzuola erreka zeharkatu eta ipar aldera Galartza errekan gora doan pista jarraitu, ezkerretik datorren bide bat aurkitu arte. Bid ehor hartu eta Galartza errekaraino jeitsi.

**90. mugarría "Burdinkurutz"** deitutako haitza da, gaineen harrizko gurutzea daukana. Errege-bideak *Galartza* erreka zubi batez gurutzatzen duen lekuan, Lapurzubitik Galartza baserrira doan pistatik 20 bat metrora.

**5:20.** Errekia zeharkatu eta aintzinan Bergaratik Antzuolara eramaten zuen Errege-Bidea jarraituko dogu errekan behera, Bergara aldera, berriro Goenboluko bide gurutzean errepidearekin bat egin arte.

Goenbulun bertan Bergara aldera hartuko dogu eta minutu gutxitan San Antoniora iritsiko gara, etapa honeri amaira emanez, 5ordu eta 30minutu inguru egin ondoren.

---

2013, urtarrillak 20